# HAMABOST GARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Plaza del Castillo nun da? Nolakoa da?
2. Handik norat doa Beñat?
3. Zer ez du maite Beñatek?

## (II) - 2 - IRUNEKO ITZULIA

*Plaza del Castillo* hartan sartzean zion: "To, adixkideek ez die gezurrik erran, Egiazki ederra eta zabala duk".

Handik badoa *Plaza del Mercado*-rat. Harritua eta loriatua zen bere begiez ikusten zuenaz. Dena yendez mukurru, marruma bat edatzen zen barne guzian, yendea harat-hunataka eta sal-erospen solasian.

Haragiak, baratzekariak, arrainkiak eta Espainiako fruitu ederrenak, eta denetarik elemeniaka. Eta ohartu zen bere herrian okaztatzen dituzten igel higuingarriak hemen saltzen zirela ahamen goxoak bezala.

Juan zen fruituak saltzen diren tokirat. Egundaino etzuen ikusi ainbeste udare, mertxika eta sagar. Eta gero begiak yuaiten zitzazkon, liluratuak, piko beltz haundi batzuetarat, mami gorrizkoak, ¡ai-ei, zein goxoak! ¡Ze asea egin zuen hogoi sosekin! Holakorik etzituen sekulan ikusi.

Ohartu zen gero aratxago yende multxo bat kuya haundi meta baten inguruan, batzuek erosten eta bertziak zerraka goxoki yaten ari zirela. Melon deitzen zuten hura gure alorretako balitz, ez lukek holako arrakastarik! zion bere baitan.

## (III) - ADITZ IKASKUNTZA.

31. Sartzean zion 32. Ez die gezurrik erran
33. Ederra eta zabala duk 34. Handik badoa
35 Yuaiten zitzazkon - 36. Gure alorretako balitz

### INDICATIF - DICERE = DIRE ←

31. Diot = il dit. La racine de ce verbe serait latine

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Nik diot = je dis | Nik nion = je disais |
| Hik diok/n = tu dis | Hik hion (m/f.) = tu disais |
| Zuk diozu = vous dites | Zuk zinion = vous disiez |
| Harek dio = il dit | Harek zion = il disait |
| Guk diogu = nous disons | Guk genion = nous disions |
| Zuek diozue = vous dites | Zuek zinioten = vous disiez |
| Heiek diote = ils disent | Heiek zioten = ils disaient |

### 34. JOAN. Indicatif

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Ni noa = je vais | N nindoan = j'allais |
| Hi hoa = tu vas | H hindoan = tu allais |
| Zu zoatzi = vous allez | Z zinoatzin = vous alliez |
| Hura doa = il va | H zoan = il allait |
| Gu goatzi = ns allons | G ginoatzin = nous allions |
| Zuek zoazte = vs allez | Z zinoazten = vous alliez |
| Hek doatzi = ils vont | H zoatzin = ils allaient |

Hura doa = il va REGIME INDIRECT Hek doatzi = ils vont

| | |
|---|---|
| (Hura-hu) = doakit = il me va | (Hek doatzi) = doazkit = ils me vont |
| " = doakizu = il vous va | " = doazkizu = ils vous vont |
| " = doakio = il lui va | " = doazkio = ils lui vont |
| " = doakigu = il nous va | " = doazkigu = ils nous vont |
| " = doakizue = il vous va | " = doazkizue = ils vous vont |
| " = doakie = il leur va | " = doazkie = ils leur vont |

### 32. UKAN - Conjugaison familière - Indicatif - Prés.

| C.D.S. A homme | A Femme | C.D.P. A.H. | A.F. |
|---|---|---|---|
| Nik diat : je l'ai | N. dinat | N. ditiat | ditinat : je les ai |
| Hik duk : tu l'as | H. dun | H. dituk | ditun : tu les as |
| Harek dik : il l'a | H. din | H. ditik | ditin : il les a |
| Guk diagu : ns l'avons | G. dinagu | G. ditiagu | ditinagu : ns les avons |
| Zuek duzue : vs l'avez | Z. duzue | Z. dituzue | dituzue : vs les avez |
| Heiek die : ils l'ont | H. dine | H. ditie | ditine : ils les ont |

### 33. IZAN. Conjugaison familière. Indicatif Présent

| | |
|---|---|
| Ni nenuk/n | = je suis |
| Hi haiz (hiz) | = tu es |
| Hura duk/n | = il est |
| Gu gaituk (gituk)/n | = nous sommes |
| Zuek zaizte | = vous êtes |
| Hek dituk/n | = ils sont |